Alonsotegi
udala ayuntamiento

Plaza Dr. Madinabeitia, 1 · 48810 Alonsotegi (Bizkaia) · Tel. 944 860 030 Fax 944 860 061

## BANDOA

### ALONSOTEGIKO UDALAK PREBENTZIO-NEURRIAK HARTU DITU KORONABIRUSARI AURRE EGITEKO

Alonsotegiko Udalak jakinarazten du gaurtik aurrera bertan behera geldituko direla, behin-behinean, KULTUR ETXEKO jarduera guztiak (liburutegia, erabilera anitzeko gela, ikasketa-gela), baita UDAL-LIBURUTEGI ZAHARREKOAK, UDAL-IKASTAROAK (bai kulturari, bai kirolari loturikoak), KIROL-INSTALAZIOAK (futbol-zelaia) eta PILOTALEKUA (saskibaloia) ere.

Alonsotegiko Udalak zabalik mantenduko du Herritarrentzako Arreta Zerbitzua; dena den, ahal den heinean kontsultak telefono bidez egitea gomendatzen dugu, 94.4860030 zenbakira deituta.

Udalak prebentzio-neurri gisa hartu du erabaki hori, COVID-19 birusaren kutsatze-kasuen gorakadak markatutako egungo egoeraren testuinguruan, udalerrian koronabirusa hedatzea saihesteko xedez.

Pertsonaren batek gripearen antzeko sintomak baditu eta koronabirusa duela uste badu, 900.203.050 telefono-zenbakira deitu beharko du, eta ez 112 zenbakira.

Udalak etengabe emango die informazioa herritarrei Udalaren kanal ofizialen bidez, hala nola erakundearen sare sozialak eta www.alonsotegi.net webgunea.

## BANDO

### AYUNTAMIENTO DE ALONSOTEGI TOMA MEDIDAS DE PREVENCION ANTE EL CORONAVIRUS

El Ayuntamiento de Alonsotegi informa que, desde hoy, se suspende de manera temporal toda la actividad en la KULTUR ETXEA (Biblioteca, aula polivalente, aula de estudio), ANTIGUA BIBLIOTECA MUNICIPAL, AULAS DE LOS CURSOS MUNICIPALES (tanto culturales como Deportivas), INSTALACIONES DEPORTIVAS (campo futbol) y FRONTON (baloncesto).

El Ayuntamiento de Alonsotegi mantendrá abierto el Servicio de Atención al Publico, pero se recomienda que las consultas que sean posibles se realicen por teléfono, 94.4860030.

La decisión municipal ha sido adoptada como medida preventiva en el marco de la actual coyuntura marcada por el incremento de casos de contagio por virus COVID-19 y con el objetivo de contener la posible propagación del coronavirus en el municipio.

Si alguien considera que tiene síntomas parecidos a la gripe y cree que puede tener el Coronavirus deberá llamar al siguiente teléfono 900.203.050, nunca llamar al 112 por estos síntomas.

El consistorio mantendrá informada a la ciudadanía mediante canales oficiales del Ayuntamiento como las redes sociales institucionales y la página web www.alonsotegi.net.

Alonsotegi ,12 de Marzo de 2020

EL ALCALDE- PRESIDENTE

Fdo. Joseba Urbieta